

BESTE URTEBETE ORAINDIK

Maialen Zubeldia

Ikaztegieta, 17 urte

Egun bat gehiago. Edo egun bat gutxiago esan beharko nuke. 360 egun, 8.640 ordu.

Goizero bezala, 8'30etan puntuan etorri da Eugenia, gu denok esnatzera. Ordu erdi bat barru ekarriko digute atzoko ogi puska gogorraren eta marmelada ia ikustezinaren razio bana. Bitartean, bakoitzak geure kaiolan, nahi duguna egin dezakegu.

Aldamenean, Amagoia kantari ari da. 27 egun bakarrik geratzen zaizkio hemen barruan eta azken aldian goizero kantari esnatzen da. Kanpora irtendakoan, denoi postal bana bidaliko digula agindu digu.

Ni, berriz, gehienetan bezala, umore haundirik gabe jaiki naiz ohe gogor honetatik. Laster izango da urtebete hemen sartu nindutela. Urte oso bat. Denbora geldi pasatzen da, zer eginik ez duzunean, oroitzapenak soilik daukazunean.

* * *

Txiki-txikitatik nion beldurra lantegi multzo luze eta ilun hari. Etxera bidean, pabilioi hura pasatu beharra neukan, eta kalera irteten hasi nintzenetik, huraxe zen itzulerako nire amesgaiztoa. Gauetan, toki hura pasatu behar nuen bakoitzean, pelikuletako irudiak etortzen zitzaizkidan burura

eta zenbaitetan korrika pasatzen nintzen, irudi haiek ahalik eta azkarren ezabatu nahirik.

Otsailaren hamabiko gau hura ez zen desberdina izan, ezaugarri xehe bategatik izan ezik. Gau hartan, nire buruan gauzatzen ziren irudi haietako bat bizitzea tokatu zitzaidan.

* * *

Bederatziak. Eta gure gosaria? Horretan ez dute ez presa haundirik izaten. Hor etorriko da, berriz ere, Eugenia bere gurditxoan plater ugari hartuta, bakoitzari berea ateko zirrikitutik pasatuz eta goizeko berriak kontatuz. Hemengo lapurra harrapatu dutela, hango etxeoandrea senarra iruzurgile bat dela... Zer axola zaigu, ba, guri hau dena? Zertarako balio digu hemen?

Nola iritsi nintzen ni hona? Hemeretzi urteko neska alai eta berritsua nintzen, pixka bat gezurtia agian, baina hori ere bere neurrian. Eta hemen naukazue orain, egindakoa larrutik ordaintzen, egindakoaz larrutik damututa.

Baina otsailaren hamabi hartan gertatutakoaren ondoren... eta legeak batere laguntzen ez zidala ikusirik...

* * *

Gertatutakoaren ondoren ez zuen asko itxaron beharrik izan. Bigarren egunean bertan ikusi nuen, zerbait egitekotan, nik neuk egin beharko nuela, eta ahalik eta azkarren gainera.

Beraz, ondo jokatzeko ari nintzela buruan finko

sarturik, nire plana burutzen hasi nintzen. Banekien nor izango zen oraingoan biktima, aurrekoan niri paper hori bera jokarazi zidan huraxe, egin zidana egin ondoren, kalean irribarretsu zebilen huraxe.

Zertarako saiatu egia zena besteei hala zela ikusarazten, nire gurasoek ere sinesten ez zidatenean eta jende guztiak ni salatu ninduenean? Hobe zen nire aldetik argitzea, eta horretantxe hasi nintzen otsailaren 15 hartan.

Etxean bakarrik nengoen. Sukaldera joan eta nire planaren lehen osagaiaren bila hasi nintzen. Zerbait zorrotza, zorrotza eta labainkorra izan behar zuen.

* * *

Filme beldurgarri bateko protagonista izatea tokatu zitzaidan gau hartan. Bueltan etxerantz nindoan, lagunekin juerga on bat bota ondoren. Goizeko 4'30ak ziren eta oraindik lantegietako pabilioi guztiak pasatu beharra neukan. Lau-retarako etxean egon behar nuen eta pauso arinean nindoan, atzerapen handiegiagatik hurrengo egunean zigorrik jaso ez nezan.

Gau iluna zen. Ilargia ere ez zen ateratzera ausartu. Baina ni kantari nindoan, gau zoragarria pasatu nuelako, eta (dena esan beharra dago) edariarekin pixka bat poztuta nindoalako. Beraz, ez da arraroa, bizkarrean labana baten ukitua sentitu nuen arte, ezer ez entzutea.

Bigarren lantegia pasatu berria nuen, ukitua sentitze hutsarekin gorputza izotz bihurtu zitzaidanean. Instant batez bihotza ere geratu egin zitzaidala pentsatu nuen.

—Ixo, laztana —esan zidan atzetik ahots zakar batek—, ixo eta ikusiko duzu zeinen ondo pasatuko dugun guk biok. Eta ez al zaizu azkarkeriarik egitea bururatuko, bestela honako gauza zorrotz hau sartuko baitizut. Jakingo duzu zer den, ezta? Edo probatu egin nahi duzu?

Izuaren izuz, buruarekin ezetz esan nion. Orduan, gerritik heldu eta bi lantegien arteko tarte ilunerantz eraman ninduen. Edariaren eragina ahaztuta neukan eta gertatzen ari zitzaidanaren kontzientzia osoa neukan. Mila ideia pasatu ziren nire burutik, baina bizkarra ukitzen zidan punta zorrotz hark, ezertan saiatzeko gogoak kendu zizkidan. Hobe zen isilik geratu eta bizirik ateratzeko esperantza mantentzea.

Puntu ilunenera gerturatzen gindoazen eran, bere eskua gerritik gorantz zetorkidan. Geunden lekua nahiko izkutua zegoela iruditu zitzaionean, buelta emanarazi eta hormaren kontra jarri ninduen. Iluntasuna zen nagusi zoko hartan eta buelta emanda ere, aurpegiarik ez niola ikusiko pentsatu zuen. Baina, oker zebilen, zulo beltz hartara iristen ziren argi izpi ahul bakarrak bere aurpegian isladatzen baitziren.

Horretantxe huts egin zuen, gauak ez zuela traizionatuko pentsatzean. Eta huraxe izan zen bere aurpegia ikusteko nik izan nuen aukera bakarra. Aurpegi hura ezaguna egiten zitzaidala konturatu

nintzen eta momentu batez izua alde batera utziz, nor zen gogoratzen saiatu nintzen.

—Zuri ere gustatuko zaizu. —Ahots hura..., non entzun nuen nik ahots hura? —Ikusiko duzu. Horrelako neska polit batek asko jakingo du hone-taz, ezta?

Esnestaltzailea! Astean bi edo hirutan bere furgonetarekin ardi-esnea saltzen ibiltzen zen gizona. Nire gurasoek hain gogoko zuten gizon gazte hura. Auzora etortzen zenean, hain jatorra eta alaia zirudien huraxe bera zen eskuin eskua nire niki azpitik sartzen hasi zena, ezkerrekoarekin labana nire saihets parean mantentzen zuen bitartean.

Orain guztiz ilunpetan zegoen. Ahotik kirats izugarria zerion eta arnas-estuka hasi zen. Eskuaz ezker bularra gogorki estutu zidan, mina emanez. Banekien gizon hura zer egitera zihoan nirekin, eta banekien bizirik ateratzea lortzen banuen, eskerrak emateko moduan izango nintzela. Nire kontra estu-estu jarri zen eta bere *hankatartekoaren* gogortasuan nabaritu nuen. Bere arnasa gero eta azkarrago zihoan.

—Umm... askaiezazkidazu prakak, neskato. Bi eskuekin, xuabe-xuabe..., goxo-goxo..., eta gero hasi zureak askatzen...

Negarrez hasi nintzen. Ez neukan ihesbiderik

* * *

Azkenean etorri da Eugenia gosariarekin. Egun onak emanez, ate azpitik nire platera pasatu dit. Zer du, ba, ona egun honek? Auskalo.

Ez dakit zer gertatzen zaidan gaur, kanpoan ari duen euri-jasagatik edo, oroitzapenak besterik ez datozkit burura. Mutil batekin oheratu nintzen aurreneko aldiaz gogoratu naiz. Egia esan, ez dut uste oheratu hitza egokiena denik kasu honetan.

16 urte neuzkan eta maiteminduta egoteagatik baino kuriositateagatik gehiago izan zen. Berak 17 urte zituen eta kontu horretan ez zen ni baino adituagoa.

Biok dexente edanda geunden ostiral gau batean izan zen. Taberna batean topatu eta hizketan hasi ginen. Bakarrik geratu ondoren, hitzetik zerbait gehiagora pasatu ginen. Ordubete geroago, esku eta hanka ginen, guztiz korapilatuta geunden eta tabernako txoko hura txikiegi geratu zitzaigun.

Parkera joan eta zelaian etzan ginen. Gaua iluna zen eta garai hartan ez zebilen inor. Pixkanaka, arropak kentzen hasi ginen eta azkenean biok erdi biluzik geratu ginen, gure gorputzen berotasunaren babespean.

Halako batean, prakak hartu eta atzeko poltsikotik kaxatxo bat atera zuen.

—Txapela jarriko al dut? —galdetu zidan.

«Zergatik ez, esan nion neure buruari, 16 urte dituzu. Proba dezagun!» Eta buruaz baietz esan nion.

Geratzen zitzaizkigun arropa apurrak kendu eta gainean jarri zen. Azpian belar hezea nabari nuen.

—Ainitze! —Amagoiaren oihuak nire oroitzapenetatik atera nau —Pasatu marmelada puska bat.

Platerera begiratu eta jaten hasi ere egin gabe nagoela konturatu naiz. Ez daukat gose haundirik

eta marmelada zati osoa eman diot Amagoiari. Ia goizero kentzen dit gosariko zatiren bat, baina ez dit batere axola, gosari hau ez baitzait batere gustatzen.

Ezin esan nire estreinaldi hura oso ona izan zenik. Ordutik, mutil harekin ateratzen hasi nintzen eta ikusten ginen gau guztietan parkeko txoko berean bukatzen genuen. Denborarekin gure harremana pixka bat hobetu genuen, baina hiru astera moztu egin genuen eta ezin esan asko hobetzeko astirik izan genuenik.

—Ogirik behar duzu, Ainitze?

Zer arraio egiten ote du Amagoia honek horrenbeste jan eta hain argal mantentzeko?

* * *

Otsailaren 15 hartan aurkitu nuen, bila nenbilen tresna zorrotza. Sukaldeko kajoi batean zegoen eta guztiz egokia zen egin behar nuenerako. Luzea, zorrotza eta labainkorra. Ezin egokiagoa.

—Tori ogia Amagoia —esan diot eskua luzatuz —Goseak ez zara geratuko behintzat!

—Mila esker Ainitze. Oroituko naiz zutaz hemendik irtetean.

Atzo Josuren beste gutun bat jaso nuen. Hemen sartu nintzenetik astelehenero idazten dit. Hasieran mindu samarra egon zen, dei hura egitean, erabili egin nuela ikusi baitzuen. Baina pasatu zaio eta orain oso gutun politak bidaltzen dizkit. Oraindik nitaz maiteminduta jarraitzen omen du eta ez omen zaio inporta esne-saltzaileari egin

niona. Ondo ezagutzen nauela eta ni ez naizela horrelakoa dio.

Batzuetan olerkiak ere bidaltzen dizkit. Horietan bere sentimenduez hitz egiten dit eta zenbat maite nauen gogorazten behin eta berriz. Agian, hemen-dik ateratzen naizenean, berarekin hasiko naiz. Barruan nagoenetik nigatik benetan arduratu den bakarra da eta nire barruan ere beraganako zerbait sortzen ari da.

* * *

Otsailaren 12ko negarrak ez zidan ezertarako balio izan.

Nirekin amaitu zuenean, lantegi arteko zoko ilun hartan lurrean botata utzi ninduen. Prakak korrika batean lotu eta, labanaz beste pixka bat izutu ondoren, ihes egin zuen.

Eta hantxe geratu nintzen ni, lurrean eserita, burua esku artean nuela eta begietatik behera zetorkidan malko-jasari eutsi ezinik.

Ordu erdi geroago, altxatu eta zoko hartatik atera nintzen. Gaua iluna zen, baina kanpoan argitasun haundiagoa zegoen. Erlojura begiratu nuen, 5'20. Ordubete bat ere pasatu ez zen arren, niri gau osoa pasatu zela iruditzen zitzaidan.

Oraindik izua gorputzean nuela, etxerantz abiatu nintzen.

* * *

9'30ak dira. Oraindik beste ordu erdi bat gertzen zaigu dutxatu aurretik. Bi egunetik behin

uzten digute dutxatzen, erosoago senti gaitezen edo, baina ez dago hemen barruan ondo sentituko denik.

Ohe gainean etzan eta begiak itxi ditut. Lo pixka bat egitea gustatuko litzaidake, baina gaur ezin dut. Laster da urte bete hemen nagoela. Amak, gutxienez, sinetsi izan balit, ez nintzen orain hemen egongo, ohe gogor honen gainean, oroitzapenetan murgildurik.

Bortxatua izan ondoren, etxera iritsi nintzenean, ama jaikita zegoen nire zain. Begiak gorriturik iristen ikusi ninduenean, zer gertatu zitzaidan galdetu zidan, eta berriro negarrari emanaz, dena kontatu nion.

Baina alkohol usaina nabaritu zidan eta aurpegi arraroz begiratu zidan. «Ainitze, berriz ere gezurretan ari al zara?» Bai, hori izan zen, gertatutako guztia kontatu ondoren esan zidan gauza bakarra.

Malko tanta lodiak doaz nire masailetatik behe-ra, ohea bustitzera. Nola galde ziezadakeen hori nire amak? Inoiz ez naiz oso ondo eraman amarekin. Uste dut aitak ni horrenbeste maite nauelako, beti izan didala inbidia pixka bat eta beti ikusi izan nau etsai bat bezala. Ez dut inoiz, nire lagunek egin ohi duten bezala, amarekin mutilei buruz hitz egin, eta gutxiago sexuari buruz. Ama beti izan da ama, nire gela txukuntzeko, arropak garbitzeko eta janaria prestatzeko. Baina ez hitz egiteko, ez nire gazte denborako dudak argitzeko.

Ez zidan sinestu. Nire amak ez zidan sinestu.

Goizean hitz egingo genuela esan eta ohera bidali ninduen. Gau osoan ez nuen lo egiterik izan eta,

azkenean, goizaldera, loak hartzear nengoela, ama etorri zitzaidan jaiki nendila aginduz.

Sukaldean zeuden aita eta biak. Aitak zer bait bazekien. Aurpegian nabaritu nion, baina amak berriro kontatzeko eskatu zidan.

Oraindik buruan neukan bizi izandako guztia eta xehetasunik txikiena ere ahaztu gabe errepikatu nuen gertatutakoa. Aitaren aurpegia uneoro zuritzen joan zen. Sinesten zidala nabaritzen nion, eta horrek lasaituta, nire kontakizuna amaitu nuen.

* * *

Azkenik iritsi zen ostirala. Iritsi zen nire mendekua betetzeko eguna.

Zortziak aldera gurasoak amonaren etxera joan ziren afaltzera. Abagune hori aprobetxatuz, erabat beltzez jantzi eta ohe azpian izkutatuta neukan labana atera nuen. Hura zen dizdira, hura, hark zeukana!

Aurpegia pixka bat zikindu eta bederatzietan irten nintzen etxetik. Haren etxerako bidean zegoen borda baten atzealdean eseri nintzen. Itxarotea besterik ez zitzaidan geratzen. Lehentxeago edo geroxeago azalduko zen.

Ez dakit zer gertatzen zitzaidan, baina gauza bakarra neukan buruan: mendekua.

* * *

Aitak sinestu zidan behintzat. Egun horretan

joan-etorri asko egin genituen etxetik komisaldegira. Baina alferrikakoak izan ziren.

Azken batean esne-saltzaileak koartada bat presatuta zeukan. Fulana batekin pasatu omen zuen gaua, eta noski, honek baieztatu egin zuen haren gezurra. Gau osoa haren apartamenduan pasatu omen zuela.

Halako ziurtasunez esan nion poliziarri esne-saltzailea zela nire bortxatzailea, aurpegia ikusi niola, bera ez zela frogatzean, denak kopeta ilunarekin begira jarri zitzaizkidala. Ama ere haien alde jarri zen eta, azkenean, burumakur itzuli behar izan nuen etxera, gaizkilea neu banintz bezala.

«Ez dago susmagarririk, beraz ez dago kasurik». Horiexek izan ziren poliziaren hitz jakintsuak. Eta ama berriro gezurretan nenbilelakoan...

Orduan erabaki nuen gaizkile hura ezin zela zigorrik gabe geratu. Eta momentu haietan hasi ziren nire buruan mendekuaren asmoak gorpuzten.

Ez zuen ez hain erraz ihes egingo.

* * *

Hurrengo gauean itzultzeko asmoarekin altxatu nintzenean, pauso hots batzuk entzun nituen. Burua izkutalekutik atera eta bera zela konturatu nintzen. Zuzen-zuzen nire aldera zetorren.

«Hator hona, bai hator, nazkagarri hori», pentsatu nuen. Eta bihotza taupada bizitan saltoka hasi zitzaidan urduritasunagatik.

Ia nire parera iritsi zenean, izkutatuta nengoen

bordaren atzetik atera nintzen. Nabaria zen ez ninduela espero eta izutu egin zen.

Baina oraindik gehiago izutu zen, bizkar atzean izkutatuta neukan eskua atera eta bertan neukan labana haundia ikusi zuenean. Pixkanaka-pixkanaka, berarengana hurbiltzen hasi nintzen.

Ihes egiten saiatu zen, baina atzean horma batekin topo egin zuen eta irtenbiderik gabe geratu zen.

* * *

Eta hemen nago orain, barrote hauen atzean, nire kondena betetzen.

Nola harrapatu ninduten ez du axola, harrapatu nindutela baizik. Eta eskerrak nire labankadak ez ziren oso sakonak izan eta esne-saltzailea bizirik geratu zen.

Bera hiltzeko nuen asmoa horretantxe geratu zen, asmo hutsean.

Amak ez dit hitz egiten eta aita hilean behin etortzen zait. Bihotza ez dauka oso ondo eta amak ni ikustera gehiagotan etortzen ez dio uzten, osasunerako kaltegarri izango omen zaiola eta.

Epaitu ninduten eta epaileak 720 egunera kondenatu ninduen. Eta hori hilketa saio bat izan zelako. Benetan hil izan banu, bizi erdia hemen pasatzera zigortuko ninduten, noski.

Oraindik beste 360 egun geratzen zaizkit, beste 8.640 ordu.